

# XagunArtea

2011ko urtarrilaren 17a

Xagun aldizkaria

61. alea

## Hasi da sagardo denboraldia



Sagardotegi-denboraldia hasi zaigu Zerainen ere. "Txotx!" ozen esanda, urtarrilaren 14an ireki zituen Otatza sagardotegiak atea eta kupelak. Oihartek berriz, handitze lanak burututa, urtarrilaren 28an hasiko du denboraldia, Lizaso eta Txapi bertsolariek lagunduta. Sagar-urte bikaina izan da joan den udazkenekoa eta sagardoa oraindik berri xamarra badago ere, itxura onekoa dator. Behin kupelei ziriak kenduta, egongo da non gozatua Zerain aldean: Otatza eta Oiharte leku bikainak dira horretarako!

## Liztormendi elkartearen tuteko eta museko txapelketak



Negu garaian karta-jokoa lagun ona izaten da epelean denbora pasatzeko. Eta uste horri jarraituz, urtero museko eta tuteko txapelketak antolatzen ditu Liztormendi elkarteak. Aurten tuteko txapelketa otsailaren 5ean, larunbata, jokatuko da, eta musekoa berriz handik hamabost egunera, otsailaren 19an. Biak arratsaldeko 4etan hasiko dira eta sari bikainak egongo dira irabazleentzat.

## Goierriko meatzeez jardunaldia



Abenduaren 22an Goierriko meatze gunearen etorkizunaz hausnarketa jardunaldi emankorra egin zen Zerain, Mutiloa eta Ormaiztegin. Aurrera begira, elkarlanerako beste ekimen eta bide batzuk ere martxan dira jada.

## San Blas eta Santa Ageda



San Blas egunean, otsailaren 3an, meza 6etan izango da santuaren omenezko ermitan eta ondoren merienda egingo da soziedadean. Santa Ageda bezperan, berriz, eskea arratsaldeko 3etan abiatuko da herriko plazatik.

# Gabonak ilusioz beteta ospatu ditugu



Abenduaren 24an, Gabon egunean, goizeko 9.30etan plazan elkartu ginen haur, irakasle eta gurasoak eta ondoren baserri-baserri eta etxe-etxe ibili ginen kantu eskean. Eguraldiak ez zigun lagundu baina ederki pasa genuen. Herritarrei eskerrak eman nahi genizkieke berain eskuzabaltasunaren ondorioz 845 euro bildu genituelako. Diru hori San Diegitoko eskolarako, Saharar karabanarako eta Zeraingo eskolarako izango da. Eskerrik asko.

*Basarte guraso elkarte*



Eskolako taldea bezala, eta urteroko moduan, kultur elkarte-katekesiko taldea ere ibili zen Gabon egunean etxez etxe kantuan eta eskean. Herriko auzo eta etxe guztietara ospakizuna eraman zuten goizez nahiz arratsaldez, eguraldi txakurrari aurre eginda. Etxe guztietan eskuzabaltasunez hartu zituzten eta guztira 1740 euro bildu zituzten. Eskerrik asko guztiei. Diru horren erdia kultur elkarte-ekintzetarako izango da, eta beste erdia katekesiko beharretarako.

## Zerain eta San Diegitoko eskolak: elkarlana Gabonetan ere presente

2.000. urtean Zeraingo herri-eskola El Salvadorreko San Diegitoko eskolarekin anaitu zen. Bi eskolen arteko harremanarekin helburu bat baino gehiago lortzen saiatu gara urte hauetan guztietan:

- Elkartasuna lantzea
- Haurrak munduko beste errealitateak ezagututa ikuspegia irekitzea, mundura zabaltzea
- Gure egoera pribilegiatutik egoera larrian bizi direnei laguntzea
- Elkarrengandik ikastea

Hamar urte hauetan urtero bidali dizkiogu elkarri gutunak, marrazkiak eta argazkiak... hemen eta han nola bizi garen/diren kontatu diogu elkarri, nola jolasten dugun, zer jaten dugun.... Horrenbeste gauza partekatu ditugu! Pozik gaude asko ikasi dugulako.

Gainera, urtero konpartitu dugu beraiekin Gabon eskean lortutako dirua, parterik handiena beraiantzat eta bestea guretzat. Ekarpen horrekin lehen urtean eskolarako materiala erosi zuten, orduan eskola herrikoia zen eta ez zuen Hezkuntza

Ministerioaren laguntzarik. Bigarren urtean, 2001ean bi lurrikara handi egon ziren El Salvadorren eta lurrikarek eskolan sortutako kalteak konpontzeko erabili zuten gure dirua. Urte batzuk geroago Ministerioak adreiluz eta zementuz egindako eskola, gaur egun dutena, eraiki zuen eta ordaindutako irakasleak izendatu zituen. Orduetik beste gauza batzuetarako erabili izan dute; adibidez, hiriburuan dagoen zoologikora irteera egiteko, haurrei eskolako uniformeak egiteko oihala erosteko... 2010ean berriz, Hezkuntza Ministerioak El Salvadorreko haur guztiei 2 uniforme egiteko proiektua abian jarri du eta hori dela eta, azken urteko ekarpen ekonomikoa eskolako ordenagailu-gela sortzeko erabiliko dute. Horrela bertako haurrek teknologia berriak erabiltzen ikasi ahaliko dute.

Etorkizunari begira jarrita, uste dugu, Zerain eta San Diegitoko eskolen arteko harremana mantentzea



garrantzitsua eta aberasgarria dela guztiontzat.

Beraiek gure laguntzarekin pozik daude ez direlako bakarrik sentitzen. Badakite, urruti bada ere, beraien berri duen eta laguntzeko prest dagoen herri bat dagoela Euskal Herrian, Zerain.

6 ordenadorez hornitutako gela bat sortzea da San Diegitoko eskolaren erronka berria, bertan ikasten duten 200 ikasleek teknologia berriak erabiltzen ikasteko. 2009ko diruarekin dagoeneko ordenadore bat edo 2 erosi zituzten. Beste lau lortzea falta zaie, lortuko ahal dute gure laguntzarekin!

*Niko eta Arantxa*

## Zankaletrero

A tzo goizeko mendi-ibilia egin eta, Xanti eta biok Eskortako parean bueltan gentozela, hor non deitzen didan Elenak, mobilez. Biharko (hots, gaurko) tokatzen zai-gula Xaguarteko hitza. Pentsatua daukela zein: *zankaletrero*.

Berehala esan diot, nik ez dakidala hitz hori zer den. Ez dudala inoiz entzun. "Letreroarekin zer ikusirik ba al du?" Elenak ezetz: zeharo bestelako kontua dela *zankaletrero* joatea, *zankaletrero* ibiltzea edo norbait *zankaletrero* eramatea. Zer da ba, Elena hitz hori? Berak istantean: "hau ta hau da", baina orain telefonoz esandakoa paperean eskribiturik daukat eta emailaz pasako dizut".

Eskortatik urrutira joan gabe, aldapan behera goazela, hor galdetu diot Xantiri: "hiretzat zer dek *zankaletrero*?" Baita berehala erantzun ere: "haurra bizkarrean hartu eta, hankatxoak alde banatara zintzilik dituela eramatea, adibidez, hori dek *zankaletrero* eramatea. Zaldu gainean, mando gainean edo asto gainean ere askotan ibiliak gera, gaztetan, *zankaletrero*".

Etorri naiz etxera eta, astia hartu orduko, Orotariko Euskal Hiztegi elektronikoan sartu dut sudurra, hitzaren bila. Kosta zait taxuzko ezer aurkitzea. *Zankaletrero*-n ez da ezer ageri, *zankalatraba*-n berdin eta, azkenik, *zankalatraka*-n abisua: joateko *zangalatraka*-ra. Joan naiz, beraz, eta hortxe azalpen laburra: *zangalatraka*, *zankalatraka* (G-toap. A). Gaztelaniaz "ahorcadadas". Hori dugu beraz hitza, bere garaian Tolosa aldean jaso. Zeraingo forma ez da, itxura denez, orain arte jaso. Donostialdean, etxean behintzat, *zankalatrak* entzundakoa naiz. Erabili ere egiten dut, aldian behin. Usurbildik Azpeitira, formarik erabiliena *zankalatraba* dela esango nuke, batzuen eta besteen testigantzen arabera.


Zer jarri ote dit Elenak, bere altxorretik? Emailera sartu naiz eta horra zer datorren: "Hankak zabalik zerbaiten gainean eserita egotea". Esplikazio argia eransten dio definizio horri. "Umeak lepo gainean edo

bizkarrean jartzen direnean "arre borritxiko" esaten diogun horixe bera. Duela urte batzuk, emakumeak gonakin zebiltzala, moto gainean atzeko asientoan alde batera eseri behar izaten zuten. Prarak jazten hasiarekin batera *zankaletrero* esertzeko aukera iritsi zen. Zaldu gainean ere berdin. Batzuk sillan esertzerakotan, honi buelta eman eta *zankaletrero* esertzen dira besoak respaldoan dituztela". Oso garbi dago, beraz, Zeraingo *zankaletrero* hori zer den: beste zenbait lekutan *zankalatraba*, *zankalatraka* edo *zangalatraka* esaten

dugun hori bera: Erdaraz "a horcadadas" esaten dutena.

Galtzen ari da hori ere. Hala dio Elenak, eta seguru nago probaren bat eginga izango duela bere partetik. Ni ere saiatu naiz, minutu pareko kontrastetxo egiten. Nire peskiza hori zuzena baldin bada, orain ari da galtzen. Bada etxerik Zerainen, *zangaletrero* zer den aita-amek biek dakitenik, seme-alaben artean zaharrenak badakienik baina gazteenak horren berri ez duenik. Kontuak hala izatera nonahi, ez etxe horretan bakarrik, azken orduko galera berria dela esan beharko genuke. Oraintxe bertan, gure sudur-puntan, gertatzen ari dena. Ez dakigu, ordea, etxe bateko joera noraino den herriko ibilera nagusiaren erakusgarri zehatz.

Zergatik galtzen ari den *zankaletrero* galdetzen baduzue, erantzuna pronto daukagu; Henry Ford autogile famatuak du galera horren eran-



Zinta-jokoan asto gainean *zankaletrero* ibiltzen ziren gazteak.

tzukizun nagusia. Berak jarri zuen modan, etxeero kotxea izatea eta lehen oinez egiten zen joan-etorri asko, autoan egitea. Nor ibiltzen da mandoz edo astoz, *zankaletrero*, lanera, merkatura edo mezatarra? Nork eramaten ditu haurrak *zankaletrero* eskolara, Aizkorriera edo medikutara? Motoak eta Vespak gure herriotan zabaldu zirenean, sikiera, neska gazteak galtzadun bihurtu ziren handik gutxira eta, orduan bai, *zankaletrero* ibiltzen hasi zitzaizkigun harat eta honat. Badakizu, izan ere, orduko esaera: "quientienevespatiene neska". Bukatu zen, ordea, motoan pakete gisa joate hura ere. Autoak hartu dio horri ere aurrea. Autoan, berriz, ez dago *zankaletrero* joateko aukerarik txikiena. Eta, horren guztiaren ondorioz, gero eta gutxiagotan baliatzen gara hitz horretaz. Hori du bekatu.

Mikel Zalbide eta  
Elena Mendizabal



## Xagu-txoko




Babesetik

ABENDUA	al	ar	az	og	or	lr	ig
			<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
Euria (l/m)			13	0	13	0	2
C° altuena			7	7	8	10	11
C° baxuena			-0,5	-0,5	-1	-2,5	4
	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>
Euria (l/m)	2	4	0,75	9	0	0	0
C° altuena	20	21	20	9	10	13	15
C° baxuena	10	11	12	6	-1	-3	1
	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
Euria (l/m)	0	0	2,5	0	10	0	0
C° altuena	9	10	3	5	7	11	15
C° baxuena	4	1	-1	-5,5	-1	-1,5	4
	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>
Euria (l/m)	0	8,5	4	34	25	1,5	0
C° altuena	15	10	16	9	5	6	7
C° baxuena	1	5	9	6	2	0	-7
	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>		
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	EURIA: 129 l.	
C° altuena	14	15	19	14	15	ALTUENA: 21°	
C° baxuena	-6	3	9	9	7	BAXUENA: -7°	

### Abendua hotz-beroa

Hogeita zortzi gradu. Hori etxek dira abenduko egun beroenaren (21°) eta hotzenaren (-7°) arteko diferentzia. Elurra ere izan genuen bisitari hilaren hasieran; eta Gabon egunean ere gertutxoraino zuritu zuen. Gainontzean, euritan ere bota zuen, batez ere Eguberri inguruan. Urte osoari begirata berriz, azken lau urteotako lehorrena izan dugu.



Aizpuru Gabon egunean txuri-txuri

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Urtarrila	133	38	231,5	45	283	223,5	121,5	91	139	104,75	239	234,5
Otsaila	201	133,5	89,5	170,25	152	145	164,5	89	152,5	30	169	98,75
Martxoa	171,5	110	154,75	40,5	89,25	120,25	98	193,25	320	311,5	127,25	79,25
Apirila	131,75	159,25	122,5	100	79	132	236,5	74	130	173	166,5	48,5
Maiatza	110,75	62	43,5	171	116	82	86,5	31	114	171	80,75	132,25
Ekaina	47,75	57,5	35	84,75	55	22,25	15,25	90,75	52	137	51,25	155,5
Uztaila	126,25	108	116,5	61,25	15,75	44,5	9	29	36	17	20,25	14,5
Abuztua	50,75	71	17,25	126,25	37,5	60,5	87	32,25	120,75	72,2	28	35,5
Iraila	89	29	45,5	42	76,5	133,5	68	130	66,5	32,85	135,5	51
Urria	34	259	56,5	120	207	83	98,5	99	123,5	151	86,25	126
Azaroa	189	244,5	194,75	178,75	180,5	175,5	312	117,5	49,25	268	326,25	240
Abendua	242	145,75	37	314,5	211	223	174,25	97,75	93,5	235,75	115,5	129,25
GUZTIRA	1526,75	1415,5	1144,25	1454,25	1482,5	1445	1469	1074,5	1397	1704,05	1545,5	1345

### Urrezko aizkora urtarrilaren 22an



Urtarrilaren 22an, larunbata, *Urrezko Aizkora* txapelketaren jardunaldia jokatu da frontoian 18:30etatik aurrera. Goiko mailan Larretxea aita semeak Senosiain anaien aurka neurtuko dira. Zilarrezko mailan berriz, Xabier aguazilak eta Mugertza III.ak Erdozia eta Irazabal izango dituzte aurkari.

### Pilotari gazteak fin

Bost herrien arteko pilota txapelketan Eneko Arzelusek irabazi egin zuen bere mailan. Gaztetxoetan, berriz, Mikel Oria finalera heldu zen, nahiz eta ezin izan zuen irabazi.

### Herri mugak

Aurrez toponimia-mapa egin zen moduan, herri mugen mapa egin nahi da orain. Lanak hasteko lehen bilera irekia otsailaren 9an, arratsaldeko 7etan egingo da kultur etxean.

### Herri bilera otsailean

Hauteskunde prozesuan hurrengo herri-bilera otsailaren 20an, igandea, izango da eguerdiko 12etan.